


Noaia!!

www.noaia.com




Usurbilgo hizkuntz politika,
eredugarria Kontseiluarentzat



Hitz Aho


Gurasoek ere badute zer esanik

Bertako produktuak! Babarrunak, sagarrak...



Santu Guztien Egunean

Erramuak,
zentruak, koroak eta
landaretan aukera
zabala hemen
aurkituko duzu.



Egun osoan zehar zabalik!

Urtinea Lorategia

San Esteban jauregia
943 362 255 Fax: 943 366 064
E-mail: urtinea@euskalnet.net

Albisteak iruditan !!

Esne makina, martxa onean

Hilabete hasieran iragarri genuen. Esne makina ipini zutela kiroldegi ondoan eta laster jarriko zutela martxan. Dagoeneko erabilgarri dago eta harrera ona izan du, gainera. Esne makina honetan Bordatxo esnea eros daiteke, Usurbilgo larbe baserrikoa.

Esnea etxeratu ahal izateko, lehenik esne potea eskuratu behar da. Ohiko lekuetan lor daiteke; Alkartasuna kooperatiban, esate baterako. Udarregiko ikasleen artean ere partitzeak ziren esne-poteak.

Behin esne potea eskuratu eta gero, litro erdi bat edo litro oso bat eros daiteke. Litroa euro bat; litro erdi bat 50 zentimo.

Larbe baserriko esnea pasteurizatuta saltzen da, erosi eta edateko moduan. Ez da irakin behar. Esnea osoa da, kontrol ugari pasa behar izaten ditu. Eta erosi eta bost eguneko epean kontsumitzea aholkatzen da.



ASTELEHEN GOIZEAN, BEZERO BATEK MAKINATIK ESNEA EROSI BERRITAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

OIARTZUNGO ORDEZKARIAK, BISITAN _____ 8. OR.

HITZ AHO TALDEKOEKIN SOLASEAN _____ 10. OR.

ELKARTASUN ASTEA _____ 13. OR.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Egunerokoa

“-Noiz hasi behar da seriozki idazten? (...)

-Ahal bezain azkar hobeto- erantzun zion irakasleak.

- Ba orduan etxera noa- esan zuen ikasleak, hitzaldi hutsa-
letan minutu bat gehiago ere galtzeko prest ez zegoen eta”.

(Del Amo, M. *Me gusta escribir*, 1987, 23)

Anaiak komunioa egin nuenean oparitu zidan lehenengo egunerokoa. Uste dut opari horrek arrakasta handia izan zuela garai horretan, komunioz jantzitako panpina eta argazki albumarekin batera. Azalean bizikleta gainean neska panpoxa agertzen zen eta urre koloreko letretan MI DIARIO jartzen zuen. Giltzarapo txiki bat ere bazuen, tamaina bereko bi giltzekin, beste inork bertan jasotakoak ez ikusteko. Sekretutasun horrek bultzatuta hasi nintzen bertan idazten.

Urte batez txintxo-txintxo idatzi nituen bertan gertatzen zitzaizkidanak letra txukunarekin. Gutxi gora behera, aldaketak aldaketa, hauxe zen 365 egunetan idatzi nuena: “ikas-tolara joan naiz eta lagunekin jolastu dut. Gero etxera etorri eta meriendatu ondoren berriro jolastera joan naiz. Afaldu, kafesnea hartu eta lotara”. Artean izugarri gustatu behar zitzaidan kafesnea, egunero-egunero agertzen baitzen nire kroniketan.

Argi dago nire 9 urtetako bizitzak ezin duela Harry Potterrenarekin konpetitu. Gauzak, ordea, interesgarriagoak bihurtu ziren 14-15 urtetik aurrera. Dagoeneko lehen eguneroko hura bukatu nuen eta beste bat erosi nuen, oraingoan giltzaraporik gabe (segurtasun neurri berria egunerokoa toki sekretuan gordetzea zen), eta gero beste bat eta beste bat... Hemendik aurrera eta hogeitapiku urtera arte lagunekiko gorabeherak eta bihotz kontuek hartzen dute orrien tarte osoa, eta benetan ikusgarria da zer nolako sentimenduarekin dauden idatzita lerro horiek. Noizean behin irakurtzen dut eta atzo gertatu izan balira bezala gogoratzen ditut gauzak. Barrea gehienetan eta malkoren bat ere ateratzen zait oraindik.

Eguneroko hori idazteak asko lagundu zidan hainbat urtetan. Nire pozak, penak, kezak eta dena delakoak bertan plazaratzen nituen, inoren erantzunaren beldur edota lotsarik gabe. Gaur egun dagoeneko ez dut egunerokorik idazten, baina nola diren gauzak, nolabait esateko, idaztea da nire bizibidea. Hala ere, inoiz ez dut berriro orduan idatzi nituenak baino gauza “autentikoagoak” idatziko.

Harry Potter-en edozein libururekin konpetitzeko moduan.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Píñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Zenbait argibide

Noauaren 381. alean argitaratutako idatzi bati buruz gure azalpenak eman nahi ditugu. Idatzi honetan, Usurbilgo Eusko Alkartasuna bezala bere burua identifikatzen duen talde batek, gezurtatzen du Usurbilgo EA desagertu denik. Alderdiarekin nolabaiteko lotura dutela jakinaraziz. Guk hori dela eta zera jakinarazi nahi dugu:

-Azken lau hilabeteetan, orain dela gutxi arte EA-ko militante izan garen eta izan gabe gertukoak ditugun pertsona batzuen artean hausnarketa sakon bat egin dugu. Hausnarketa honen ondorio bezala bi erabaki garrantzitsu hartu ditugu:

Lehena, kolektiboa, Usurbilgo EA-ren herri erakundea desagitea. Bigarrena, norberaren arabera, non militante bakoitza egoeraren aurrean posizionatu den. Ia denek, EA uztea erabaki dugu. Pauso hau eman ez duten gutxiek militanteek duten

obligazioak ez betetzea erabaki dute horrek dakartzan ondorioekin. Erabaki honek praktikan espultsioa dakar.

-Usurbilgo EA bizirik bezala aurkeztu zen taldea ordea, dauzkagun datuen arabera ez da lehengo militante edo jarraitzaileez osatua.

-Baina talde bezala jende berriarekin osatu bada, Usurbilgo bizitza politikora gure ongietorria ematen diogu. Honek esan nahiko duelako Eusko Alkartasunaren helburu eta ideia berrietan berkokatu direla. Eusko Alkartasunaren noraezaren adibidea litzatekeena, orain arte eta bere sorreratik eman duen bideari uko eginez. Guk emandako pausoak justifikatzen dituen noraeza hain zuzen.

-Bestalde, Noaua Kultur Elkartetik jakinarazi digute idatziaren egileak ez duela Noaua! baimendu bere nortasuna jakinaraztera. Horrela Usurbilgo EA bizirik beza-

la aurkeztu den taldea edota pertsona ez dira bere kideen nortasuna errekonozitzera ausartzen. Sortu diren gaizki ulertuak konpontzeko aukera ekidinez.

Bukatzeo, jakinarazi nahi dugu egoera hau modu zibilizatu batean konpondu nahi dugula. Idatzi horren egileen errekonozimenduarekin konponduko litzatekeena. EA-ren militante berriak direla esanez, eta orain arte Usurbilgo EA osatu dugunok inongo erlaziorik ez zegoela garbi adieraziz.

Anonimotasun honekin bukatzea, transparentziaren aldeko pauso eraginkor bat izango litzateke, eta bai EA-ri eta baita Hamaikabati egingo lioke mesede. Ez baitugu baztertzen bi alderdiokin inolako erlaziorik ez dutenek idatzi izana artikulua hau.

Jokin Zubiaur eta Imanol Zubiondo
(Eusko Alkartasunako militante ohiak)

Erredakzioaren oharra: Gutun honen bukaeran iradokitzen da, akaso, Hamaikabat eta Eusko Alkartasunarekin inolako erlaziorik ez dutenek idatzi izana NOAUA/ko 381 alean (urriak 9) argitaratutako gutuna. Gutun hura argitaratu aurretik, idatziaz arduratzen dena usurbildarra dela, EAko afiliatua dela eta gutuna argitara emateko Eusko Alkartasuna alderdiaren baimena zuela ziurtatu genuen.

Manifestaziorako deia egin dute errausketaren aurkako herri plataformek

Errausketaren aurkako plataformak Hondakinen Euskal Legea osatzeko hilabetez aritu ziren lanean. Lan hori, 35.000 sinadurekin babestu zuten. Baina duela egun gutxi, aintzat ez hartzea erabaki zuen Gasteizko Legebiltzarrek. Herri ekimenak, lege proposamen horren bidez, gaikako bilketa intentsiboa bultzatu eta errausketa baztertzen zuen.

Lege proposamena oraingoz baztertua izan bada ere, Donostia Bizirik plataformako kideak haserre azaldu ziren prentsaurrekoan, bereziki, EAJ, PSE-EE eta PP alderdiekin: "haientzat demokrazia parte hartzailea zer den ikasteko beneta-

ko lezioa eman digute. Herri ekimen bidezko legea prestatzea baimendu ziguten, 35.000 sinadura biltzen utzi ziguten eta Eusko Legebiltzarrean gure proposamena aztertzeke unea heldu denean ez egokitzen jo dute ekimena", salatu zuten.

"Gizarte demokratikoa eta partehartzailea exijituko dugu"

Herri ekimenaren lege proposamena kontuan hartu ez bada ere, lanean jarraituko dutela ziurtatu zuten Donostia Bizirik plataformako kideek. Eztabaida kalera aterako dute, beste behin ere, eta horretarako manifestazioa deitu dute azaroaren 28rako.



MANIFESTAZIOA DONOSTIAN

EGINGO DA, AZAROAREN 28AN.

"Oraingoan ez dugu bakarrik zaborren kudeaketa osasuntsu eta iraunkorra eskatuko edo zaborren gaineko euskal legea errebindikatu. Oraingoan benetako gizarte demokratikoa eta partehartzailea exijituko dugu; iritzi ezberdina izateko eskubidea aldarrikatu dugu".

Ika-mika !!

Aurreko arratsalde batean lokalean nengoela telebistari begira zer eginik ez nuela, lagun batek zera esan zuen: Hi hurrengo urten erraustegiya iten hasi ber ditek ta zoze liau berkoyu no? Bestela bakik ze izangokek Andatza beirau ta erraustegiya ikustia? Eta geroztik burua jira-biran dabilkit. Eta nire mugak ezagutu nahian inguruari begira jarri naiz.

Institutura bidean goizero Zubietatik pasatzen naiz eta etxera bidean berriz bide berdinetik buelta. Udazkenean orbel sika-tuak errepidera erortzen ikusten ditut hego haizearen laguntzaz, neguan izotza ageri da errepide bazterreko orbelen gainean eta udaberrian bizia loratzen ageri da kimu berriekin batera. Baina erantzun zaidazu irakurle nola ikusiko nukeen naturaren gurgil hau erraustegia tartean sarturik?

Drogarik nahi?

Baina egia esan batzuei naturaren gurgilaren tira-birek ez die deus axola. Hori bai, beren gurgilak oreka galtzean orduan soilik axola die besteen gurgilek. Azken finean gurgil mota asko daude mundu zabal honetan, baina gehienak txanponen inguruan dabilta biraka. Eta hori da tristeena, erraustegiaren gurgila txanponez gainezka dagoela eta gurgil horren gidariek patrikak gehiago bete nahi dituzte.

Diruaren sukarra dutela dirudi. Droga moduko baten gisan dute dirua. Eta gero gazteoi deitzen digute drogazale marihuana erretzen dugulako edota pastillak jaten ditugulako. Guk bederen gure buruari egiten diogu kalte porro bat erreta edota pastilla mihi gainean jarrita. Zuek, ordea, diruaren goseak sukar bero batean murgildu zaituztenak inguruko herritar guztiei kalte

egingo diezue erraustegiak isur ditzakeen droga guztiekin.

Horregatik diot erraustegiaren babesle zaretzen guztiak zergatik eraman nahi duzuen herria suntsipenera? Akaso zuen bizitzari jarri diozuen helburua da, noski zuen patrikak beteak izanik edozein gaixotasun senda dezakezue, erraustegiaren mamuekiko immune bihur zaitezke. Baina besteok ezin dezakegu horrelako luxurik onartu eta zuek eskaintzen diguzuen droga irentsi beharko dugu beste erre-mediorek gabe, edo ez da hala? Eta hau galdetzen dizueten bakoitzean hitz politen bidez apaintzen dituzue barnetik pentsatzen duzuelarik: Besteak... guk esan ohi dugun moduan: jodituko ttunk!

Ugaitz Agirre

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Ojandegia - Gozotegia
LABE-GOXO

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

350



Urriaren 24an ekintza klimatikoaren nazioarteko eguna da. Aurten hainbat talde ekologista eta bakarkako ekintzaileak mugimendu bat sortu dute egun horretan ekintza ezberdinak antolatzeko. Mugimendu honen izena 350.org da.

Talde honen helburua presioa egitea da hainbat erabakiren aurrean. Izan ere aurtengo abenduan, Kopenhagen mundu guztiko buruzagi politikoak bilduko dira aldaketa klimatikoarekin zer ikusia duen itun berri bat sinatzeko. Itun berri honen erabaki nagusia zera izango da: zer nolako neurriak hartu behar diren atmosferara emititzen den karbono kopurua gutxitzeko.

Gaur egun milioiko 387 mgr karbono partikula emititzen dira. Zientzialari askoren esanetan kopuru hau jasan ezina da, eta irtenbide bakarra lehenbailehen kopuru hau jaistea da. Pentsatzen dute 350 mgr milioiko izango litza-tekeela neurri egokia urte batzuetan oreka lortzeko. Mugimendu honen bidez mobilizazio handia sortu omen



da eta munduan zehar ekintza ugari antolatu dira. Edozeinek antolatu dezake zerbait bere herri edo hirian, 350 zenbakia hartu konsigna bezala.

Abenduko bileran ekintza guztien berri izango dute mandatariek eta horrela nolabaiteko presioa lortuko da. Euskadi mailan, Gasteizen antolatu dute martxa bat.

SANTUENEA

ALEX TELLO

Berriz topo



Besarkada sentibera batekin, uda hasieran agur esan genion elkarri. Aurreko egun haietan batu gintuen esperientzia, aurkikunde ahalmentsua izan zen erabat. Azken besarkada bakar hura baino, nahiago nuen zurekin joan. Gero, epe antolatuetan buelta egin eta zurekin itzultzeko behin eta berriro.

Hemen gera zintezan eskaintza luzatu nizun. Ondo biziko ginатеke zailtasun guztiekin. Handik alde egin nahi zenuen arren, hartarako goiz, ezin zenuen niregatik egin zuregatik egingo nukeena. Antza, bion nahia eta ezina. Malkoak astiro isuriz, ni, aspaldiko partez.

Kilometroetako distantzia ez zela eragozpena izango, hitz eman nizun. Eta hala, posta elektronikoz, hitz idatziz harremana heldu eta zure irudiekin konektatzen nintzen logelako leihotik. Alabaina zure hatsa han zen, zurekin.

Lagun birtualizatua bertan, are eta gertuago zein inoiz baino urrunago. Sekula ezagutu ez bazintut, ez nuke zure gabezia sumatuko. Eta, udazkenarekin etorri zara eta bilatu nauzu! Oroimenean sailkatuta zintudanean...

Koldarraren beldurrak gaintitu, harro jantzi eta lagunartean topo egin dugu. Errealitatean lekuz kanpo sentitu naiz. Antza, bion nahia eta ezina. Denbora agudo igaro bedi.

Egun, kalera irten eta askoren hatsak sentitzen ditut. Elkar gurutzatzen ditugun begirada, agur eta hitzak, oro har, birtualak baino mesedegarriagoak.

ATXEGALDE

MA^A JESUS URBIETA

Auzokide berriak

Gure auzoan bizilagun berriak ditugu. Dagoeneko etxe batzuetan familia berriak bizi direla ikusten dugu. Batzuk ezagunak ditugu lehendik eta beste batzuk berriz berriak dira auzoan, ongi etorriak guztiak ere!



Bestalde eguraldiaren aldaketa nabarmena ere aipatu nahi nuke. Berotik hotzera bapatean aldatu da giroa. Azken egunotan txamarrak atera behar izan ditugu eta berogailuak ere piztu ditugu. Udazkena giro ederrekoa ari zen egiten baina aldaketa egun batetik bestera etorri zaigu.

Auzoan dugun hilerria ere egun gutxitan ikusiko dugu lorez apainduta. Eguraldi aldaketarekin jarraian etorriko zaigu Santu Guztien eguna eta dagoeneko hilerria txukuntzeko lanetan ari dira.

Azkenik esan, urriaren 18an Odol Elkarteko kide garen auzokide batzuk Urnietan izan ginela. Bertan, omenaldi jaia antolatu zuten eta herri ezberdinetako kideak elkartu ginen. Meza entzun ondoren Kultur Etxean izan genuen batzarra eta ondoren bazkaria izan genuen Urnietako kiroldegian, dantzaldi eta guzti.

AGINAGA

M^ANGELES ARRUTI

Datorren urtekoei begira



Hor dituzue argazkian Intxaurreta aldean izan ziren oilasko biltzaileei ateratako argazkia. Talde bapoa eta dantzan ere abilak.

Bestalde, antzerki taldea ere aipatu nahiko nuke. Aspaldian ez nuen hainbeste barre egin. Denak oso ondo aritu ziren baina, azpimarratzekoa Aritzek egindako subastaren aurkezpena. Oso oso ona benetan! Zorionak denei eta animoak jarraitzeko.

Aginagako emakumeak egiten dituzten eskulanak ere ezin utzi aipatu gabe. Benetan txalogarriak oleoz eta akuarelaz egindako margoak, *punto kruz* egindakoak, zeramikazko lanak, oihal margotuak, gantxiloiz eginikoak. Eta ez pentsa gazteak bakarrik egiten dituztela lan hauek, laurogeitik gorako amonak ere tartean aritzen dira. Denei esan, jarraitzeko egiten dituzten lanetan eta eskerrak eman denei gure begiak alaitzeko ematen duzuen aukeragatik.

Eta laburrean bada ere zorionak festak antolatzen ibili zareten guztiei egindako lan bikainagatik eta datorren urtean ere jarraitzeko animatu nahiko nituzke. Kritikei



kasurik ez egiteko, oso erraza bai da egiten dutenak mai-seatzea, nor berak laguntzea baino errazagoa. Abesbatza ekartzea oso erronka polita izan dela ere esan nahi nuke. Azkenik ongi etorria eman nahi nioke Ibon Alberdiri.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Alde batetik bestera



Usurbilera bizitzera etorri ginenetik, eta Troiako honetan bizitzen jarri ginenetik, betidanik deitu izan dit atentzioa etxe pareko errepideak. Milaka milioika pertsona pasako ziren alde batetik bestera urte hauetan guztietan; egunean bakarrik harrigarria da bertatik pasatzen den jende kopurua. Nire gelako leihotik ikus ditzaket, ikasten ari naizen bitartean burua leihora igotzen badut. Lehenengo errepidea, ondoren trenbidea.

Arriskutsu ikusi dut betidanik alde batetik besterako bidea, eta nahiz eta egunero bertatik oinez pasa behar dudana, ez diot beldurra kendu; geroz eta beldur handiagoa ematen dit.

Ez ote dago irtenbiderik? Horren zaila ote da? Askotan egin dizkiot galdera hauek nire buruari, eta egia esan ez dakit zein ote den irtenbidea, baina ziur naiz esfortzu txikienarekin egoera asko aldatuko litzatekeela. Aukera bat izan litezke Kalezarko autobus geltoki inguru horretan jarritako argiak abiadura mantxotzeko, edo zebra bide bat akaso, edo biak...

Zubi moduko bat jartzea ere ez litzateke gaizki etorriko, horrela bai errepidea eta bai trenbidea ziurtasunez pasa ahal izateko, baina agian azken hau konplikatuégia gerta liteke.

Ez dakit. Baina argi ikusten dut zerbait egin beharra dagoela, egunen batean, edo beste behin, sustorik jaso nahi ez badugu behintzat!!

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Festa ederra astelehenekoa

Goizean goiz esnatu eta euria kantak gidoen bezala: egunon hau egun ederra, euria ari du baina ederra da... Ba horrelaxe hasi nuen nik eguna.

Gosalduta, dutxatik pasa eta baserritar arropa jantzi ondoren han abiatu ginen Zubieta alderantz, festa bila. Hamabi eta erdiak aldera iritsi ginen, kantu poteorako juxtu-juxtu.

Frontoian hasi ginen kantatzen eta pixkanaka-pixkanaka jendea hurbiltzen eta animatzen joan zen. Gainera, gu kantatzen jarri orduko euriak ere atertu zuen. Saiotxo bat egin ondoren, herri batzarrekoek hamaiketaketoxo bat eman ziguten, eta indarrak berreskuraturik, ahotsak prestatu eta kantatzeari ekin genion. Horrela pasa genituen Almandegi eta baita Barazar ere, eta konturatzerako bazkaltzeko ordua zen. Tripa bete ondoren berriro ere kantatu egin genuen. Baina ez zegoen lehen bezain lasai kantatzeko astirik, herriko frontoian Patxi Perez eta konpainia prest baitzeuden.

Han joan ginen denak dantzara. Pixkanaka hasi ginen, mantso hasi eta erritmoarekin bukatuz. Saio ederra egin genuen dantzan ere, eta konturatzerako zortziak, etxera joateko ordua. Festa luze eta giro politaren ondoren inork ez du nahi izaten, baina horrelakoak dira egunak.



Oiartzungo udaleko ordezkariak atez atekoa nola egiten den ezagutzera etorri dira

Duela hilabete, Hernani eta Oiartzungo udal ordezkariak atez ateko bilketa sistema martxan jartzeko asmoa iragarri zuten. Usurbilen, atez atekoak sei hilabete betetzen zituen egun berean. Oiartzuarrak, aurreko astean izan ziren bisitan. Gaikako bilketa sistema gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

Aurreko astean, Oiartzungo udaletxe-ko ordezkari bat izan zen Usurbilen. Atez atekoa ezagutarazi asmoz, bisita gidatu moduko batean parte hartu zuten. Atez atekoak nola funtzionatzan duen ezagutzeko aukera izan zuten eta herritarren azalpenak ere jaso ahal izan zituzten.

Biltzaileek hondakin organikoak nola jasotzen dituzten ikusita, Atalluko larrialdi gunea eta Pikaolako garbigunea bisitatu zituzten. Atez ateko bilketarako herritarren zerbitzura jarri den informazio bulegoan ere izan ziren.

OIARTZUNGO ALKATEA

“Oiartzunen ere funtzionatuko duela ziurtatu zuen, herritarren partehartzea nahitaezkoa dela ahaztu gabe”

Bizilagun eta komertzio txiki baten esperientziak jasotzeko aukera ere izan zuten. Bisitan zehar, Usurbilgo alkatea eta ingurumen zinegotzi eta teknikariak Oiartzungo ordezkarien zalantzak argituz joan ziren.

Bisitaldia bukatuta, Oiartzungo alkateak irteera honen helburua atez ateko hondakinen bilketa martxan ikustea eta bere funtzionamendua ezagutzea izan zela adierazi zuen. Bere hitzetan, Usurbilgo esperientziak gaikako bilketa aurrera eraman litekeen proiektua dela erakusten du eta Oiartzunen ere funtzionatuko duela ziurtatu zuen. Herritarren partehartzea eta inplikazioa nahitaezkoak direla ahaztu gabe.



AURREKO ASTEAN, BISITAN IZAN ZIREN OIARTZUNGO ALKATEA, ZINEGOTZIAK ETA AGENDA 21 EKO ORDEZKARIAK.

Hamaikabat alderdia, atez atekoaren aurka

Zaborra biltzeko atez ateko sistema baztertzan duela azaldu zuen lehengo astean Hamaikabat alderdiak. Gisa horretako erabakiekin "ekonomikoki eta sozialki hipotekatuko dituzte herritarrak", Luis Mari Ormaetxea Usurbilgo H1eko zinegotziak Donostian eginiko agerraldian azaldu zuenez. Ormaetxearen arabera, San Markoseko Mankomunitatea hauste bidean da, eta zatiketa horren adibidez ezarri zuen Usurbilgo atez ateko zabor bilketa. Oiartzun eta Hernaniko udalek zabor bilketa sistema horren aldeko apustua egiteak ere haustura areagotzen duela gaineratu zuen.

Hiru udalerri horiek beren hondakinen kudeaketa integralera jotzen dutela adierazi zuen. "Salbuespen bat dago, ordea, ez baitute definitzen nola tratatu behar den konpostatu edo berrerabili edo birzikla ezin daitekeen hori".

Usurbilgo alkatea, elkarlanaren alde

Oiartzungo ordezkariak Usurbilen izan zirenean, Xabier Mikel Errekondo alkateak elkarlanaren aldeko apostua egin zuen: "San Markoseko Mankomunitateak, atez ateko bilketa bultzatu behar dutenek eta Foru Aldundiak azpiegiturak ahalik eta errentagarrien bihurtzeko elkarlana egin behar dute, eta erakundeen arteko akordioa egin, osasun publikoa babesteko".

Usurbilgo herritarren %18k atez ateko bilketa babesten ez dutela eta sorturiko "eztabaida antzuak" ez dituela ulertzen adierazi zuen. Aurkako jarrera dutenei zera eskatu zien, ea galdetuko duten zer egingo den errauste plantak sortuko lituzkeen hondakinekin.

Atez atekoari esker, 5.000 biztanletik gorako herri guztiek materia organikoa gaika biltzeko legez duten eginbidea betetzen duen Gipuzkoako herri bakarra Usurbil dela ere esan zuen.

Usurbilgo Udalaren hizkuntz politika eredugarritzat hartu du Kontseiluak

Kontseiluak udalaren hizkuntza politika neurtu du, eta neurketen emaitzak argitaratu ditu. Emaizta kuantitatiboegi dagokienez, 0tik 10erako tartean, Usurbilgo Udalak 9,49ko nota ateratu du, eta 3. dago Hego Euskal Herrian neurtutako ehundik gora udalen sailkapenean. Horrez gain, Kontseiluak udalaren hizkuntz politikaren elementu positiboak eta hobetu beharrekoak zehaztu ditu.

Elementu positiboen artean, honako hauek nabarmendu ditu: udalak plan orokorra edukitzea, udalak kontratatutako zerbitzuetan euskararen gaineko eskakizunak araututa egotea, herritarrei euskara ikasteagatik diru laguntzak ematea eta lan munduan euskara bultzatzeko planak edukitzea. Hobetu beharrekoen artean, aldiz, bi hauek adierazi ditu: gaztelaniaz egiten diren ekitaldiak gaztelaniaz egiten direla ez zehaztea eta udalak lagundutako hedabideetan euskararen erabilera zein izango den araututa ez edukitzea.

UEMA, BIDELAGUN

“Emaitzek adierazten dute UEMAren eredia baliagarria dela euskararen normalizazioan”

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak UEMAko udalek lortutako emaitza onak nabarmendu ditu; izan ere, sailkapeneko aurreneko 10 postuetan UEMAko udalak daude. Jon Bollar UEMAko lehendakariaren aburuz, zenbakien atzean UEMAko udalek hizkuntz politika bateratua gauzatzeko konpromisoa ikusten da, baita UEMAren ereduak euskararen normalizazioari onura dakarriola ere.

Emaitzak onak izan arren, UEMAK autokritika egin eta harago iritsi nahi du,



HEGO EUSKAL HERRIAN, EHUNDIK GORA UDALEN ARTEAN
HIRUGARREN DAGO USURBILGO UDALA, KONTSEILUAREN ARABERA.

herriz herri zer hobetua dagoela nabarmendu baitu. Hobetzeko bidean, UEMAK euskalgintza aukeratu du bide-lagun: batetik, udalaren aurretik Kontseiluarekin hitzarmena sinatu zuen, neurketen bidez udalen hizkuntza politikaren segimendua egiteko, eta, bestetik, Behatokiarekin duela urte eta erdi sinatutako hitzarmena du, herritarrek hizkuntza kexak bideratzea bultzatzeko, baita udalen aurkakoak direnak ere.

61 udalekin lanean

Horrenbestez, UEMAren irakurketaren arabera, emaitzek adierazten dute UEMAren eredia baliagarria dela euskararen normalizazioan. Eredu horren muina udalerri euskaldunetan “euskarak lehentasunezko trataera garbia” izatea da, eta gaur egun 61 udal daude eredu horren baitan lanean. Nolanahi ere, Jon Bollarrek dei egin die gainerako udalerri euskaldunei UEMArekin bat egiteko eta ekainaren 13ko Berako UEMA Eguneko leloa bere egiteko: “Euskarak elkartzen gaitu”.

Jon Bollarrek gogora ekarri du UEMAK bide propioa duela: “Bidea norabide bakarrekoa da, euskararen normalizaziorantz doa, eta emaitza onak eman ditu, gaur ikusi dugunez. Eta,

esan bezala, bidelagunak asko izan arren, bidea zabala da, denok kabitzeke modukoa.”

“Elkarlanean aritzea, Kontseiluaren izpiritua”

Xabier Mendiguren Kontseiluko kideak elkarlanean garrantzia azpimarratzen du, “Kontseiluaren izpiritua betiere elkarlanean aritzea baita: administrazio guztiekin zein bestelako eragile sozial, ekonomiko eta politikoekin. Horrexegatik ere, dinamika honen baitan, Kontseiluak hizkuntza politika hobetzeko udalerrietako erakundeekin elkarlana lortzen saiatzen ari da. Hor kokatzen dira berriki aurkeztutako 25 udalekin sinaturiko hitzarmenak eta ekainean UEMArekin sinatutako hitzarmen berezia”.

UEMAko udaletan egindako neurketei dagokienez, Xabier Mendigurenek uste du emaitza hauek argiki uzten dutela UEMAko herrietan aplikatzen den hizkuntz politika, oro har, egokia dela.

Hitz Ahok gurasoen parte hartzea bultzatzen jarraituko du ikasturte berrian

Ikasleek hasi berria dute 2009-10 ikasturtea, eta honenbestez, baita euren gurasoen bilgunea, Hitz Aho guraso eskolak ere. Aurten gauzatu nahi lituzketen ekitaldiak programatzen hasiak dira jada. Lehenengoa, adimen emozionalari buruzko tailer sorta. Astelehenean ekingo zaio Joxe Amiama psikopedagogoaren eskutik, sarrera hitzaldi batekin.

Komunikazioa eta familia, autoritatea eta diziplina, familiako aldaketen aurrean seme-alabekin nola jokatu, komunikabideen eragina seme-alabengan... Hauek eta beste gai batzuk jorratu dituzte Hitz Aho guraso eskolako kideek burutu izan dituzten ekitaldietan. Bilguneak jada bere hirugarren ikasturteari ekin berri dio, sorrera urteko asmo berarekin. "Gurasoei, ikastolan eta haurrei dagokien heziketan dagokien espazio bat emateko", adierazi dute Hitz Ahotik.

Eta gune horretan, hitzaldi eta tailerren bidez, gurasoen zalantza eta kezka iturri asko diren gaiak landuko dituzte. Besteak beste, seme-alaben behar emozionalak ezagutzea da euren asmoa. Ikasturte berri honetan, lehenik adimen emozionala jorratuko dute. Tailer formatua baliatuko dute horretarako. "Tailerretan, ez da bakarrik hizlariari entzutea. Norbere esperientziaren berri emateko aukera dago, gauzak gehiago zehazteko auke-



HITZ AHOKOEK, TALDEKO KIDE IZATERA ANIMATU NAHI DITUZTE GURASOAK, EDOA ANTOLATZEN DITUZTEN EKITALDIETAN PARTEHARTZERA.

ra. Beste gertutasun bat du eta aberasgarriagoa da", adierazi dute Hitz Ahotik. Kezkak edota zalantzak planteatu bakarrik ez beraz, horiek guztiak gainerako gurasoekin partekatzeak aukera egon ohi da Hitz Ahokoek antolatu izan dituzten ekitaldietan.

Guraso eskolak zabalduetako gunea, aita-amentzat soilik ez, seme-alabentzat, ikasle edo gaztetxoek ere euren tarteak izan eta parte hartu ahal izatea bultzatu nahi dute. Aurten ere mahai ingururen bat antolatu nahi lukete, aurreko bi ikasturteetako esperientzia ikusita. Behin, kirol munduko aurpegi ezagunak gonbidatu zituzten Udarregi ikastolara. Asmoa hain eza-guna ez den kirolarien alderdiari

buruz hitz egitea zen. Aurreko ikasturtean bestalde, drogomenpekotasuna izan zuten hizpide. Halako egoerak bizi izan dituzten zenbait pertsonaren testigantzak ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek.

Heziketa, guztion ardura

Gonbita bikoitza luzatu nahi dute Hitz Ahotik: "jendeak parte har dezala. Gurasoen aldetik izan dadila gogo bat, taldea berrituz eta indartuz joateko, ekarpen berriak egiteko". Antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko eta taldeko kide izateko deialdi bikoitza beraz, gurasoen bilguneetik, heziketak elkarlana suposatzen baitu. "Heztea guztion lana da.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!


USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

URDAINTZI S.L.
eraikuntza



BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Nolabaiteko kontraesan garaian bizi gara. Seme-alabak alde materialetik oso ondo zaintzen ditugu eta behar dituzten baliabide guztiek ematen dizkiegu. Baina gero beste esparru batzuetan, heziketarenean adibidez, nolabaiteko joera bat bada sozialki, delegatzearena, hezitze lanaren alderdi garrantzituena gizarte hezitzaileek egin behar dutela ulertzen baita". Horregatik, gurasoek ere heziketa lanetan zeresana dutelako, parte hartzera deitzen zaie. Hitz Ahokoak hamabostean behin biltzen dira, Udarregi ikastolan. Haiekin hartu emanetan jartzeko, taldeak antolatzen dituen ekitaldiren batera joatea nahikoa da. Interesdunek bertan jasoko dituzte argibide gehiago.

JOSTAILU AZOKA

"Beste herri batzuk interesa azaldu dute Hitz Ahok gabonetan antolatzen duen azokaren inguruan"

Hitzaldietara joan ezin edota aipatu ekitaldietan jorratutako gaietan gehiago sakondu nahi duenak bestalde, Sutegiko udal liburutegian gai desberdinei buruzko bibliografia eskura dezake. Apropos horretarako egokitutako gunek bat dago kultur etxean.

Jostailu Azoka, elkartrukea bultzatuz

Eguberrien atarian aurten ere ez du hutsik egingo jostailu azokak. Hitz Ahotik guraso eta gaztetxoei etxean izan eta erabiltzen ez dituzten jokoak azokarako uzteko gonbita luzatuko zaie aste batzuk barru. Bilketa lanak amaituta, jasotakoa erakusgarri jarriko dute, azokara bertaraten direnak jostailu bat beste batekin truka dezaten. "Gabonen inguruan sortzen den kontsumoa saihestu eta etxeko jostailuak berrerabiltzea lortu nahi genuen", adierazi dute Hitz Ahotik. Eta lortu dute, ekimena heritik kanpo eredugarri bilakatzeraino. Antza, jada beste udalerriren bateko herritarrak Hitz



GABONEN BULTAN JOSTAILU AZOKA ANTOLATUKO DUTE, HIRUGARRENEZ.

Ahokoekin hartu emanetan jarri dira, azoka euren herrian burutzeko.

Urte amaieran ospatuko den Jostailu Azokaren hirugarren edizio honetan, antolatzaileek parte hartzaileen adin tarte zabaldu nahi lukete. Orain arte, haurrak eta bere gurasoak

izan dira, gehienbat jostailuen elkartrukearen egitasmoarekin bat egin izan dutenak.

Baina adinez nagusiagoak diren gaztetxoen edo liburuen elkartrukea ere bultzatu nahi lukete laster ospatuko den hirugarren edizioan.

Adimen emozionala, ikasturte berrian Hitz Ahok jorratuko duen lehen gaia

Datorren astelehenean sarrera gisa baliatuko duten hitzaldiarekin hasiko dira jorratzen Udarregi ikastolan, adimen emozionalari buruzko nondik norakoak. Azaroan, tailer sortaren txanda izango da. Hizlari lanetan, Joxe Amiama psikopedagogoak jardungo du.

Autoezagutza, besteen harremanekin lotuta dauden enpatia, gaitasun sozial eta bizitzeko trebetasunak, adimen emozionalaren gaiarekin erlazionatutako kontzeptuak dira. Hitz Ahotik gogorarazten dutenez, "adimena inguruari moldatzeko gaitasuna, edo munduaren eskaera eta premiei erantzuteko gaitasuna da". Gure alderdi arrazional zein emozionalak aipatu moldaketan parte hartzen dute, guraso eskolatik gaineratzen dutenez. Horregatik aipatu gaia-

ri lotuta zenbait hitzordu deitu dituzte gurasoen bilguneak. Sarrera hitzaldi batekin abiatuko da adimen emozionalaren lanketa. Azaroan jarraipena emango zaio, heziketa zikloka antolatu den tailer sortarekin.

Urriak 26, astelehena
17:00 Sarrera hitzaldia.

Gurasoentzat tailerrak
HHkoentzat: azaroak 16, 23, 30.
Arratsaldeko 17:00ean.

DBHkoentzat: azaroak 16, 23, 30. Arratsaldeko 18:30ean.

LHkoentzat: azaroak 18, 25 eta abenduak 2, Arratsaldeko 17:00etan.

Oharra: ekitaldiek iraun artean, haurtzaindegi zerbitzua izango da.

Informazio gehiago
www.udarregi.com

Bisitan izan ziren Peter Pan eta Kanpanila

Kanpanila eta Peter Panen itzala antzerki saioak txiki utzi zuen Sutegiko auditorioa. Txalo konpainiak Peter Pani buruzko eleberri klasikoak egokitu du; arrakasta handiarekin gainera. Pasa den igande arratsaldean, haur eta helduen arreta bereganatu zuen. Sarrera denak agortu ziren baina azken orduan hurbildu zirenei ere toki egin zitzaaien.

Umoretsu hasi zen antzezlan eta lehen unetik gozatu zuten Sutegira bertaratu ziren guztiek.

Udalaren laguntzarekin, NOAUA! Kultur Elkartek antolatu zuen Peter Panen saioa. Azaroan ekitaldi gehiago izango dira.



PETER PANEN ANTZEZLANAK TXIKI UTZI ZUEN SUTEGIKO AUDITORIOA.

Berdintasunerako Plana osatzen hasteko garaia da

Berdintasunerako Udal Plana osatzeko asmoa abiarazi dute Udalak eta Elhuyar Aholkularitzak. Herritarrei zuzendutako partehartze prozesuko lehen bilkura, kulturari lotutakoa, datorren astean izango da, urriaren 28an asteazkena Artzabalen, 18:30ean hasita.

Helburua, etorkizunean gai honen inguruan egin daitekeenari buruz hitz egitea litzateke.

Iaztik hona, herrian emakumezko zein gizonezkoen aukera berdintasuna sustatzeko elkarlanean ari dira Udala eta Elhuyar Aholkularitza. Diagnostika burutu zuten lehenik, herritarren

ekarpenak kontuan hartuta. Eta egun, Berdintasunerako Udal Plana diseinatzeko ari dira. Oraingoan ere, herritarren iritziak jaso nahi dituztenez, lau bilkura ireki antolatu dituzte.

Herritar guztiek dute zer esana, inork baino hobeto ezagutzen dituzte zeintzuk diren euren beharrak, herriko hutsuneak eta hobetu beharrekoak.

KULTURA ARLOKO BILKURA

- Zer egin liteke herriko kulturgunetan emakume eta gizonek protagonismo bera izan dezaten?

- Kultur jardueratan emakumeen parte-hartzea bultzatu behar al da? Nola?



URRIAREN 28AN ASTEAZKENA, KULTUR ARLOARI ZUZENDUTAKO BILERA EGINGO DA ARTZABALEN.

- Emakumeen interesak eta beharrak kontuan hartzen al dira?

Noiz: urriak 28, asteazkena.

Non: Artzabalen. Ordua: 18:30ean.

Josue
Igeltseritza:
☎ 606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BENTA
TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Saharari buruzko afari-tertulia bertan behera, hizlaria atxilotu zuelako Marraketxeko gobernuak

Aurreko astean, Elkartasun Astearen berri eman genuen. Lehen ekitaldia Andatzpen izango zela, Saharari buruzko afari-tertulia, urriaren 21erako iragarri zena. Bada Marraketxeko gobernuak hizlaria atxilotu zuen aurreko astean eta afari-tertulia bertan behera geratu da. Usurbilgo Elkartasun Taldeak iragarri dituen gainontzeko ekitaldiak, ordea, bere horretan mantenduko dira.

Urriaren 8an, Casablancako aireportuan (Marraketx) saharar herriko zazpi lagun atxilotu zituzten. Tindoufeko errefuxiatuak bisitatzen izan ziren eta bueltan atxilotuak izan ziren, aireportuan bertan.

Atxilotuen artean da Giza Eskubideen Elkarteko presidente den Brahim Dahane. Gizon hau zen Usurbilgo afari-tertulian parte hartu behar zuena. Tribunal militar batek epaituko ditu zazpi atxilotuak.



BRAHIM DAHANE, USURBILEN ARITU
BEHAR ZEN SAHARAR HIZLARIA.

Elkartasun Asteak aurrera jarraituko du

“LOS LIMONEROS”,
PALESTINARI BURUZKO PELIKULA

Saharako ordezkaria atxilotu eta lehen ekitaldia bertan behera geratu bada ere, gainontzeko deialdiak bere horretan mantendu dituzte antolatzaileek. Ostiral honetan, urriak 23, Palestinako gatazkari buruzko pelikula eskainiko da Sutegin: "Los Limoneros". 22:00etan, sarrera doan.

Sinopsia: Salma 50 urteko alarguna da. Zisjordaniako herrixka batean limoiak landatzen ditu. Erakundeek uste dute lur eremu hori mehatxu bat dela ministerioaren segurtasunerako. Baina Salma alargunak ez dizkie utzi nahiko lur horiek eta ez du amore emango bere limoi defentsan.

LARUNBAT EGUERDIAN,
HAMAIKETAKOA SUTEGI PAREAN

Elkartasun Astea antolatu zen iaz. Ekimen haren segidan edatatzeko aste honetan antolatu diren ekitaldiak. Ostiralean "Los Limoneros" pelikulari esker, Palestinako errealtatara gerturatzeko aukera izango dugu.

Larunbatean ordea, urriaren 24an, hamaiketako egingo da Sutegi aurreko plazatxoan. 12:00etatik aurrera, haragi egosia, txorizoa, tortila...

Bidezko merkataritzako produktuak egongo dira salgai larunbatean. Mundubat eta Mugen Gainetik gobernu kanpoko erakundeetako materiala egongo da salgai.

Kurdu herriari buruzko hitzaldia

Kurdu herriarengana hurbiltzeko aukera paregabea dugu ostegun honetan. Multimedia baliabideen bidez (dokumental bat eta hiru diaporama), herri honen egokieraren berri emango du Karlos Zurutuza kazetariak.

Kurdistan gaian espezialista eta Bihar elkarteko kide da Karlos Zurutuza. Argia, Gara, Berria eta 7Kren kolaboratzailea, bai eta atze-

rriko prentsan ere.

Abuztuan, Nawab Bugti Reporting Award 2009 jaso zuen Karlos Zurutuza kazetariak, Iran nahiz Pakistango Balutxistanen egindako lanagatik.

URRIAK 22 OSTEGUNA.

19:30ean Sutegin, sarrera doan.
Antolatzailea: Aitzaga elkarte.



KARLOS ZURUTUZA KAZETARIAK
ESKAINIKO DU HITZALDIA.

Herrian ekoitzitako produktuak sustatzeko egitasmoa bideratzen hasi da Udala

Herriko produktuak sustatzea, herriko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura indartzea eta horretarako, kontsumo kooperatiba bat sortzea. Udala jada alor horretan eragiteko egitasmoa bideratzen hasia da. Lehen pausoak emanda, bi bilkura irekien bidez herritarren artean ezagutaraziko da gauzatu nahi den proiektua. Ekarpenak jaso nahi direnez, ezinbestekoa izango da ekoizle zein kontsumitzaile diren herritarren parte hartzea. Pedro Alberdi egitasmoko arduradunak dioen moduan, gaiak guztioi eragiten baitigu. Argibideetarako arreta bulegoa zabaldu berri du Udalak.

NOAUA! Egitasmoa, herritar talde batek proposatuta abiatu da, ezta?

Pedro Alberdi. Belmonte Kalezarko auzo elkarteko kideek, Udalari kontsumo kooperatiba bat sortzeko proposamena egin zioten. Haurrak Haur Eskolan dituzten gurasoak oso gustura daude bertako jangela ekologikoarekin, baina kezkatuta, gero ikastolara joaten hastean etena dagoelako. Ekimenari jarraipena ematea proposatzen zuten. Udalak proposamena aintzat hartu eta proiektu orokorragoa egitea pentsatu zuen. Lehenik, azterketa bat egitea. Nirekin kontaktuan jarri ziren, Azpeitiko azokari lotutako proiektu bat bukatzen ari nintzenean.

PEDRO ALBERDI, ARDURADUNA

“Lehenengo sektorea berrindartu nahi bada, ezinbestekoa da herritarren parte hartzea”

N. Nekazaritza ekologikoa bultzatu nahi duzue egitasmo honen bidez?

P. A. Nekazaritza ekologikoa zigilu bat da, ongarri kimikorik erabiltzen ez duena. Ahal dela pixkanaka horretara jo nahi genuke bide osasungarriena delako, baina ekoizle zigiluduna ez izatea ez da eragozpena izango Udalaren proiektu honetan parte hartzeko. Baserritar guztientzat zabalik dago. Bertako produktzioa eta kontsumoa bultzatu nahi dugu.



PEDRO ALBERDI, EGITASMO BERRI HONEN ARDURADUNA.

N. Egun, zer fasetan dago proiektua?

P. A. Proiektu parte hartzailea izatea nahi dugunez, lehen fasean, herriko elkarte desberdinekin harremanetan jarri gara; Hurbilago, Behemendi edota Belmonte auzo elkartearekin, ikastolako ordezkariekin, baserritarrekin... Guztiekin lan talde bat osatu dugu.

N. Proiektu oso bat planteatzen duzue, herriko produktuen ekoizle eta kontsumitzaileak integratzen dituen.

P. A. Hala da, bai. Azken denboraldian, baserriak galtzen ari dira eta lehen sektorea oso gaizki dabil. Horrek ez du eragina bakarrik baserritarrengan, baita herritarrengan ere. Baserritarrek lan handia egiten ari dira dagoena mantentzeko. Baina herri guztiaren arazo bat da. Gaur egungo ekonomia globalizatu honekin kontsumitzaile eta ekoizleen arteko lotura eten egin da eta ez dakigu zer jaten dugun, ez dakigu erosten ditugun produktuak nondik datozen eta nola ekoizten diren. Lehenengo sektorea berrindartu nahi bada, ezinbestekoa da herritarren parte hartzea. Elkarlana derrigorrezkoa izango da.

N. Herritarren txanda da, beraz.

P. A. Hurrengo pausoa, herritarrek deialdi zabala egitean euren partehartzea bultzatu nahi da. Herritarrek zenbat eta gehiago etorri, hobeto, egitasmoak indar handiagoa hartuko baitu. Bestalde, nekazaritzarako egokiak izan daitezkeen

Udalaren lur sail publikoak eta produktu ekologikoak eskuratzeko zer aukera dauden aztertu nahi dira. Prozesu luzea izango da. Urtez urte helburu batzuk finkatu eta betetzen joango gara.

Egitasmoaren berri emateko bilerak deitu dira

Bilkura irekiak

Kooperatiba eredu desberdinak edota egitasmoa bera azaltzeko bi bilera ireki deitu ditu Udalak, egunotan:

Urriak 22, osteguna

Arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

Azaroak 4, asteazkena

Arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

Arreta bulegoa zabalik

Argibideetarako arreta bulegoa zabaldu du Udalak, garai bateko Gure Pakea zahar egoitzan, egun ludoteka dagoen lekuan:

Asteazkenetan: 11:00-14:30.

Ostegunetan: 14:30-19:30.

Telefono zenbakiak: 943 371 050 / 660 061 251.

E-posta: ingurumena@usurbil.net

Eskubaloi talde guztiak, martxan

Mutilek duela aste batzuk hasi zuten 2009-2010 denboraldia. Neskak, senior mailakoak, pasa den asteburuan hasi zuten lehiaketa Logroñon.

Usurbil Kirol Elkarteko senior mailako eskubaloi taldeak 34-30 irabazi zion pasa den astean Gasteizko Corazonistas taldeari, Oiardo kiroldegian jokatu zen norgehiagokan.

Pasa den astekoa, jarraian lortzen duten bigarren garaipena da. Euskadiko Txapelketan 8. postuan daude oraintxe bertan senior mutilak.

Bigarren Territorial mailako taldeak, 25 eta 23 galdu zuen larunbatean Urola BM taldearen aurka.

Jubenil mailako mutilen taldeak, 30

eta 28 irabazi zuen Amenabar Zarautzen aurka eta kadete mailako mutilen taldeak ere garaipena lortu zuen Ordizian Iurena OET taldearen aurka.

Bestetik, kadete eta jubencil mailako nesken taldeek ere irabazi egin zuten pasa den astean. Euskal Liga jokatzeko ari dira bi taldeak.

Kadete mailako taldeak gol bakar batengatik irabazi zuen, 24- 23, Atletico Basauriren aurkako partidari.

Jubenilak, berriz, abantaila handiagoa lortu zuten, 25-20 azken emaitza.

Senior mailako nesken eskubaloi taldeak, aldiz, ez zuen ondo hasi denboraldia larunbatean Logroñon. 21-8 galdu zuten Sporting Logrobus taldearen aurka.



ESKUBALOI TALDEKO KIDE BATZUK,
IAZ EGIN ZEN FESTAKO IRUDIAN.

Asteburuko pilota partidak

URRIAK 24 LARUNBATA
Goizeko 10:30ean, Usurbilen

JUBENILAK banaka
USURBIL - HERNANI
(Imanol Zinkunegi)

ESKUZ BINAKA
JUBENILAK 2. maila
USURBIL - AURRERA SIAZ
(G. Mendizabal - M. Galarraga)

NAGUSIAK banaka
USURBIL - ESKORIATZA
(Ibon Aranalde)

ESKUZ BINAKA
NAGUSIAK 1. maila
USURBIL 1 - BELOKI
(Xabier Errasti - Julen Urruzola)

Antxetara eta Saltxipira, eskubaloi taldeko zozketei esker



Bi astean behin, Usurbil FT taldekoek errifa zozketak egin ohi dituzte. Duela aste bat, Aitor Landaluze herritarra izan zen irabazlea. 678 zenbakiarekin, bi laguntzako afaria egokitu zitzaion Antxeta jatetxean. Jatetxeari eta partehartzailei eskerrak eman nahi dizkie taldeak.



Pello Hernandezek 4.245 zenbakiarekin irabazi du eskubaloi taldeak egin duen azken errifa: Saltxipin bi laguntzako bazkari edo afaria. Usurbil FTko kideek eskerrak eman dizkiete Saltxipi jatetxeari eta beste sariak ematen laguntzen duten guztiei.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06:55	>>	07:15	07:25	07:35	06:45	06:55	07:05	>>	07:30
07:40	>>	08:05	08:15	08:25	07:15	07:25	07:35	>>	08:00
08:10	>>	08:35	08:45		07:45	07:55	08:05	>>	08:30
08:40	>>	09:05	09:15	09:25	08:15	08:25	08:35	>>	09:00
09:10	09:30	09:35	09:45		08:45	08:55	09:05	>>	09:30
09:40	>>	10:05	10:15	10:25		09:30	09:40	09:45	10:10
10:40	>>	11:05	11:15	11:25	09:45	09:55	10:05	>>	10:30
11:40	>>	12:05	12:15	12:25		10:30	10:40	10:45	11:10
12:10	12:30	12:35	12:45		10:45	10:55	11:05	>>	11:30
12:40	>>	13:05	13:15	13:25	11:45	11:55	12:05	>>	12:30
13:10	13:30	13:35	13:45		12:45	12:55	13:05	>>	13:30
13:40	>>	14:05	14:15	14:25		13:30	13:40	13:45	14:10
14:10	14:30	14:35	14:45		13:45	13:55	14:05	>>	14:30
14:40	>>	15:05	15:15	15:25		14:30	14:40	14:45	15:10
15:10	15:30	15:35	15:45		14:45	14:55	15:05	>>	15:30
15:40	>>	16:05	16:15	16:25	15:45	15:55	16:05	>>	16:30
16:40	>>	17:05	17:15	17:25		16:30	16:40	16:45	17:10
17:40	>>	18:05	18:15	18:25	16:45	16:55	17:05	>>	17:30
18:10	18:30	18:35	18:45		17:45	17:55	18:05	>>	18:30
18:40	>>	19:05	19:15	19:25	18:45	18:55	19:05	>>	19:30
19:10	19:30	19:35	19:45			19:30	19:40	19:45	20:10
19:40	>>	20:05	20:15	20:25	19:45	19:55	20:05	>>	20:30
20:15	20:35	20:40	20:50	21:00	20:45	20:55	21:05	21:10	21:30
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	21:15	21:25	21:35	21:40	22:00
22:15	22:35	22:40	22:50	23:05					

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08:00	08:20	08:25	08:35	08:45	06:45	06:55	07:05	07:10	07:30
09:00	09:20	09:25	09:35	09:45	07:45	07:55	08:05	08:15	08:40
10:00	10:20	10:25	10:35	10:45	08:45	08:55	09:05	09:15	09:40
11:00	11:20	11:25	11:35	11:45	09:45	09:55	10:05	10:15	10:40
12:00	12:20	12:25	12:35	12:45	10:45	10:55	11:05	11:15	11:40
13:00	13:20	13:25	13:35	13:45	11:45	11:55	12:05	12:15	12:40
14:00	14:20	14:25	14:35	14:45	12:45	12:55	13:05	13:15	13:40
15:00	15:20	15:25	15:35	15:45	13:45	13:55	14:05	14:15	14:40
16:00	16:20	16:25	16:35	16:45	14:45	14:55	15:05	15:15	15:40
17:00	17:20	17:25	17:35	17:45	15:45	15:55	16:05	16:15	16:40
18:00	18:20	18:25	18:35	18:45	16:45	16:55	17:05	17:15	17:40
19:00	19:20	19:25	19:35	19:45	17:45	17:55	18:05	18:15	18:40
20:00	20:20	20:25	20:35	20:45	18:45	18:55	19:05	19:15	19:40
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	19:45	19:55	20:05	20:15	20:40
22:00	22:20	22:25	22:35	22:45	20:45	20:55	21:05	21:15	21:40
22:30	22:50	22:55	23:05	23:15	21:45	21:55	22:05	22:15	22:40

LARUNBAT GAIETAN

00:00	>>	00:25	00:35	00:45
01:00	>>	01:25	01:35	01:45
02:00	>>	02:25	02:35	02:45
04:00	>>	04:25	04:35	04:45
05:00	>>	05:25	05:35	05:45
06:00	>>	06:25	06:35	06:45

LARUNBAT GAIETAN

23:15	23:25	23:35	>>	00:00
00:15	00:25	00:35	>>	01:00
01:15	01:25	01:35	>>	02:00
02:15	02:25	02:35	>>	03:00
03:15	03:25	03:35	>>	04:00
04:15	04:25	04:35	>>	05:00
05:15	05:25	05:35	>>	06:00

• (Donostia) • (Urbil) • (Usurbil) • (Orio) • (Zarautz) • (Donostia) • (Urbil) • (Usurbil) • (Orio) • (Zarautz)

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06:08	06:15	06:24	06:39	05:47	06:01	06:11	06:20
06:38	06:45	06:54	07:09	06:17	06:31	06:41	06:50
07:08	07:15	07:24	07:39	06:47	07:01	07:11	07:20
07:38	07:45	07:54	08:09	07:17	07:31	07:41	07:50
08:08	08:15	08:24	08:39	07:47	08:01	08:11	08:20
08:38	08:45	08:54	09:09	08:17	08:31	08:41	08:50
09:08	09:15	09:24	09:39	08:47	09:01	09:11	09:20
10:08	10:15	10:24	10:39	09:47	10:01	10:11	10:20
11:08	11:15	11:24	11:39	10:47	11:01	11:11	11:22
12:08	12:15	12:24	12:39	11:47	12:01	12:11	12:20
12:38	12:45	12:54	13:09	12:17	12:31	12:41	12:50
13:08	13:15	13:24	13:39	12:47	13:01	13:11	13:20
13:38	13:45	13:54	14:09	13:17	13:31	13:41	13:50
14:08	14:15	14:24	14:39	13:47	14:01	14:11	14:20
14:38	14:45	14:54	15:09	* 14:17	14:31	14:41	14:50
15:08	15:15	15:24	15:39	14:47	15:01	15:11	15:20
* 15:38	15:45	15:54	16:09	* 15:17	15:31	15:41	15:50
16:08	16:15	16:24	16:39	15:47	16:01	16:11	16:20
* 16:38	16:45	16:54	17:09	* 16:17	16:31	16:41	16:50
17:08	17:15	17:24	17:39	16:47	17:01	17:11	17:20
* 17:38	17:45	17:54	18:09	* 17:17	17:31	17:41	17:50
18:08	18:15	18:24	18:39	17:47	18:01	18:11	18:20
* 18:38	18:45	18:54	19:09	* 18:17	18:31	18:41	18:50
19:08	19:15	19:24	19:39	18:47	19:01	19:11	19:20
* 19:38	19:45	19:54	20:09	* 19:17	19:31	19:41	19:50
20:08	20:15	20:24	20:39	19:47	20:01	20:11	20:20
21:08	21:15	21:24	21:39	20:47	21:01	21:11	21:20
22:08	22:15	22:24	22:39	21:47	22:01	22:11	22:20
22:40	22:47	22:56	23:11				

••••• Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN ••••• Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
 ••••• Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN ••••• Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN

Bezperoen arretarako bulegoa ☎ 902 54 32 10 www.euskotren.es i atfcliente@euskotren.es



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Irteera Usurbil	Irteera Astigarraga
ASTELEHEN-OSTIRALERA	ASTELEHEN-OSTIRALERA
07:15	07:00
09:15	09:00
12:45	12:30
14:45	14:30
18:15	18:00
20:15	20:00
22:15	22:00
IGANDE-JAIEGUNETAN	IGANDE-JAIEGUNETAN
15:15	15:00
19:15	19:00

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA				
Usurbil → Urnieta				
USURBIL	SANTUENEA	ZUBIETA	LASARTE	URNIETA
07:15	07:20	07:25	07:30	07:45
08:15	08:20	08:25	08:30	
09:15	09:20	09:25	09:30	09:45
12:30	12:35	12:40	12:45	13:00
13:30	13:35	13:40	13:45	
14:30	14:35	14:40	14:45	15:00
18:30	18:35	18:40	18:45	19:00
19:30	19:35	19:40	19:45	
20:30	20:35	20:40	20:45	21:00

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA				
Urnieta → Usurbil				
URNIETA	LASARTE	ZUBIETA	SANTUENEA	USURBIL
07:45	07:00 08:00 09:00	07:05 08:05 09:05	07:10 08:10 09:10	07:15 08:15 09:15
09:45	10:00 12:15	12:20	12:25	12:30
13:00	13:15 14:15	13:20 14:20	13:25 14:25	13:30 14:30
15:00	15:15 18:15	18:20	18:25	18:30
19:00	19:15 20:15	19:20 20:20	19:25 20:25	19:30 20:30
21:00	21:15			

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE

LANEGUNETAN
Zubieta-Lasarte 7:25 / 08:25 / 09:25 / 12:40 / 13:40 / 14:40 / 18:40 / 19:40 / 20:40
Lasarte-Zubieta 7:00 / 08:00 / 09:00 / 12:15 / 13:15 / 14:15 / 18:15 / 19:15 / 20:15
LARUNBATETAN (DIRA LANAK AMATZETAN)
Zubieta-Lasarte 08:15 / 12:45 / 15:05 / 21:35
Lasarte-Zubieta 08:10 / 12:40 / 15:00 / 21:30
JAI EGUNETAN (DIRA LANAK AMATZETAN)
Zubieta-Lasarte 11:20 / 13:30 / 15:30 / 21:35
Lasarte-Zubieta 11:15 / 13:25 / 15:25 / 21:30

Busen errendaketa: www.tsst.info ☎ 943 36 17 41

BUS-TAXI	Astelehenetik Ostiralera
☎ 630 64 35 96*	
ORRATZAK	ORRATZAK
1	Usurbil kaskoa
2	Kalapur
3	Iartea
4	Ibarrola
5	Aratzain
6	Txeritxan
7	Urdaibai
8	Aginaga
9	Txokoalde
10	Urdaibai San Migel
11	Santutxena
12	Usurbil kaskoa
13	Santutxena
14	Amiri
15	Etxeto ingurua
16	Alkortaenea
17	Zubieta
18	Txeritxan
19	Usurbil kaskoa
20	Usurbil kaskoa

Agenda !

Urriak 22 osteguna
- Irakeko kurduak, bizitza bazterbi-dean. 19:30etan Sutegin.

Urriak 23 ostirala
- "Los limoneros", Palestinari buruzko pelikula, 22:00etan Sutegin.

Urriak 24 larunbata
- Hamaiketako Sutegi aurrean. Mundubat eta Mugen gainetik erakunde postuak. Sutegi aurrean, 12:00etan.

Eguneko goardiako farmaziak

Urriak 22, osteguna
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Urriak 23, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 24, larunbata
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Urriak 25, igandea
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 26, astelehena
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 27, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Urriak 28, asteazkena
Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Urriak 29, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 30, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Urriak 31, launbata
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Azaroak 1, igandea
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Castilla Farmazia (22:00-09:00),
Urbietea kalea, 7 Hernani (943 552 941)
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

"Ahuntza, edo nor da Sylvia?", datorren astean antzerkia Sutegin

Antzezlan arrakastatsua eskainiko du Txalo Teatroak datorren astean Sutegin. Giza harremanei buruzko obra "gogorra" da, antzerki absurdoaren airea duen tragedia.

Abiapuntu gogorra du lan honek, muturreko egoera. "Eta aldi berean, polita. Gizartean agian entzun dugu bestialismoa existitzen dela, eta jendeak txortan egiten duela animaliekin, baina hau haratago doa, maitemindu egiten baita", Karlos Zabala zuzendariaren hitzak dira. Eta horrek familia eredua zalantzan jarri, eta bikoteaz, fidelitasunaz, maitasunaz, laguntasunaz eta beste hamaika kontuz hitz egiteko aukera ematen du.

Edward Albee (1928, AEB) antzerkigile sarituaren "The Goat: or, Who Is



RAMON AGIRREK HARTZEN DU PARTE
LAN HONETAN.

Sylvia? (2002)" testua euskaratu Txalo Teatroak urte hasieran lehen aldiz taularatu zuten obra.

Urriak 30 ostirala. 19:30ean, Sutegin. Sarrerak: alde zurreretik 8 euro (kiroldegian salgai), egunean bertan 10 euro.

Aktoreak: Ramon Agirre, Asier Hormaza, Ane Gabarain, Asier Oruesagasti.

Igande honetan, ordu aldaketa

Igande honetan, ordu bat gehiago izango dute batzuk, lo egiteko, beste batzuk lanean pasa beharko dute ordu bat gehiago eta festazaleenak, aldiz, ordu bat gehiago festarako. Izan ere, ordulariak ordubete atzeratu behar dira igandean, neguko ordutegira egokitzeko. Hiruretan, beraz, ordu biak izango dira.

Besteak beste, eguzkiaren orduak ahalik eta gehien aprobetxatzeko egiten da ordu aldaketa. Neurri honen aldekoek argindarra aurrezteko ere balio duela argudiatzen dute. Hala ere, bada ordu aldaketaren aurka dagoenik.

Azaroan hasiko da Esperientzia Tailerra

Arlo desberdinetako ezagupenak eguneratu eta gauza berriak ikasi, ondo pasa eta lagun berriak egiteko aukera eskaintzen du 50 urtetik gorako herritarrei zuzendutako Esperientzia Eskola Tailerrak. Matrikulazio epea zabalik dago, datorren urriaren 30era arte. Ikasturtea azaroaren 10ean hasiko da.

Aurkezpena: azaroak 10, asteartea, 16:00-18:00. Artzabalen.

Landuko diren gaiak: Euskal Herriko historia, gorputz adierazpena, literatura...

Matrikulatzeko: 943 224 146. Azken eguna, urriak 30.

Enrique Alonso
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283
-Oro har libratze-lanak
-TB kamerakin hodi eta
tximinien azterketa

txirriStra
KONTSEJU ZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

ETXEBIZITZA

- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu iluntzeko 20:00etatik aurrera 661 56 84 71 telefonora.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanon. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baseri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarren apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 94336237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratu-

- ko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Usurbilgo emakume bat, herritarra, eskaintzen da gaixoa zaindu edo etxeko lanak egiteko. Nahi den ordutegia, gaixoei gaua egiteko ere prest. 687348223
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.

- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Zazpi gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat eurotan. Tlf zenbakia: 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina, ontziteria, kaxa erregistratzailea, irabiagailua, zuku-makina, ontzi-garbigailua, harraskak, altzairu herdoilteztinezko gainekoa... 607 389 570 (Mireia). E-posta: istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke denda zena). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu: Oskar: 609 46 87 59 / oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galde-tu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldian abesteko kantari liri-koa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaiaberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925

Zorionak Sara,

Urriaren 23an 7 urte beteko dituzu. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Ah! prestatu tarta pottolo bat denontzako.



Oharra: Mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan: 943 360 321. E-posta: erredakzioa@noaua.com

JAIOTZAK

Lorea Atxega Beleño, urriak 2.
Lilian Li Barrenetxea, urriak 3.
Uxue Martin Telletxea, urriak 9.
Maddi Urkia Uli, urriak 12.



HILDAKOAK

Miguel Muguruza Zubiria
80 urterekin zendu zen
urriaren 20an.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelekttrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

antenas
Telemar

Quantis
Powered by ASTRA

ADSLa zure etxera ez delako iristen
bakartua sentitzen zara

Banda zabaleko
Internet
orain eskuragarri!

2 Mega arte
21,90€tik
bakarrikan!

kobertura %100
250 Kanalekin eta IP ahotsa

ASTRA

elikano kalea 13 HERNANI Tthos. 943 66 93 99
antenas@telemar.es

www.08848.com

Usurbildarren zerbitzura

Auto Guria

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
943 363 298 • Faxe: 943 363 862

I. URRUZOLA
ARROZTEGIA

Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea

Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

ERRAUSKETAREN ERAGINA INGURUAN

Linfoma No-hodgkin (10km-arte)
 Ehun bigunetan minbizia edo sarkomak (2km-arte)
 Fetuaren mutazio eta malformazioak (5km-arte)
 Bizkarrezur bifidoa eta bihotz arazoak (5km-arte)
 Kantzer ezberdinak (16km-arte)
 Asma arazoak (10km-arte)
 Leuzemia eta haurren minbizia (7,5km-arte)



ARRISKU GORENEKO INGURUA: 5 Km-arte

USURBIL, ANDOAIN, URNIETA, LASARTE-ORIA,
 HERNANI, IGARA-IBAETA, ANTIGUO, BERIO,
 IGELDO...

BIZTANLEAK 115.488

ARRISKU ERTAINEKO INGURUA: (8-14 km)

AMASA, BILLABONA, BERROBI, BELAUNTZA, ELDUAIN,
 IBARRA, TOLOSA, HERNIALDE ANOETA, IRURA, ASTEASU,
 LARRAUL, ALKIZA, AIA, ZARAUTZ, GETARIA, ARANO,
 ERRETERIA, PASAIA, LEZO, OIARTZUN, BIDEBIETA,
 INTXAURRONDO ETA ALTZA-HERRERA

BIZTANLEAK 206.836

ARRISKU ALTUKUKO INGURUA: (5-8 km)

ADUNA, ZIZURKIL, ORIO, ASTIGARRAGA
 DONOSTI ERDIALDEA, AMARA, GROS,
 LOIOLA, MARTUTENE

BIZTANLEAK 59.323

ARRISKU BAXUKO INGURUA: 14 eta 21 Km bitartekoa

GOIZUETA, LEITZA, BERAESTEGI, GAZTELU, OREXA, LIZARTZA,
 ALTZO, ORENDAIN, LEGORRETA, IKAZTEGIETA, ALEGIA,
 ALBIZTUR, BIDEGOAIN, ERREZIL, BEIZAMA, AZPEITIA, ZESTOA,
 ZUMAIA, IRUN, HONDARRIBIA

BIZTANLEAK 112.544



Osasun-tekiko batzordea



GUZTIRA 494.191